

Ze kostu izango genituzke?

Proiektua martxan jartzeak eta mantentzeak hainbat kostu ekarriko lituzke. Kostu nagusien artean, aplikazioaren garapena eta eguneraketa egongo lirateke (horretarako behar diren informatikari eta teknikarien lana barnean egoten). Era berean, zerbitzarien, segurtasun sistemaren eta azpiegitura teknologikoaren gastuak kontuan hastu beharko lirateke. Diseinu grafikoarekin lotutako gastuak ere izango ditugu, baita publizitate eta marketing kanpainetan egindako inbertsioak ere, batez ere sare sozialen bidez aplikazioa ezagutarazteko. Azkenik, moderazioaren, bezeroarentzako arretaren eta administrazioaren ondorioz kostu orokorrak ere izango genituzke.

